6.2. En aquellos ejercicios que no puedan ser realizados simultáneamente por todas las personas aspirantes, el orden de actuación se iniciará por la persona aspirante, cuyo primer apellido comience por la letra que de conformidad con lo establecido en la resolución de la secretaría de estado para la administración pública esté vigente a la fecha del ejercicio.

6.3. Se producirá la exclusión automática del procedimiento selectivo de quienes no comparezcan al llamamiento del tribunal para el desarrollo de las pruebas obligatorias en la fecha, hora y lugar que se señale, incluso por razones de fuerza mayor. La misma regla se aplicará a quienes concurran a la realización de cualquiera de las pruebas obligatorias una vez iniciada la ejecución de las mismas. Si alguna de las pruebas obligatorias constara de varios ejercicios, se considerará incomparecencia la ausencia o retraso a cualquiera de ellos.

6.4. Las personas aspirantes deberán comparecer a las diferentes pruebas provistas de su documento nacional de identidad oficial o pasaporte cuya presentación podrá ser exigida por el tribunal en todo momento. La falta de presentación de este documento determinará la automática exclusión del procedimiento selectivo. Será válido a estos efectos el carnet de conducir en su actual formato.

6.5. Deialdiaren azken iragarpen ofiziala egiten denetik bi hilabete igaro aurretik ezingo dira hasi ariketak. Lehen ariketa egiteko lekuaren, egunaren eta orduaren berri ALHAOn emango da, gutxienez zazpi egun natural lehenago, baita udaletxeko iragarki taulan ere.

6.6. Batera egitekoak ez diren hurrengo ariketa-saioetara dei egiteko iragarkiak udaletxeko iragarki taulan, Udalaren web-orrian eta Udaltzaingoan, jarriko dira, gutxienez ere hurrengo saioa baino 72 ordu lehenago.

6.7. Azterketako probak oinarri honetan adierazitako hurrenkeran ez baizik eta beste batean egitea erabaki ahalko du epaimahaiak, edo horietako batzuk egun berean egitea. Kasu horretan, aurrekoa gainditu dutenen emaitzak baino ez dira ebaluatuko. Hautatze prozesura aurkezten diren hautagaien kopurua kontuan izanik, epaimahaiak probak hainbat txanda eta lekutan egitea erabaki ahalko du.

6.8 Hautatze prozesurako deitutakoek parte hartu ahal izango dute probetan. Orobat izango dute parte hartzeko aukera deituta ez daudenek, baldin eta erreklamazioa aurkeztua izanik proba-egunean hura oraindik ebatzi gabe dagoela egiaztatzen badute.

6.9. Zuzenbidean onartutako edozein frogabide baliaturik egiaztatu beharko dira betebeharrak eta merezimenduak, eta hizkuntz eskakizunari dagokionez, zehazki, HAEEren, Hizkuntza Eskola Ofizialaren, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren nahiz eskumena duen beste administrazio publikoren baten ziurtagiri bidez.

6.10. Hautatze prozesuaren edozein unetan ere, jatorrizko agiriak eskatu ahal izango dituzte Funtzio Publikoaren Sailak eta epaimahaiak.

**Zazpigarrena.- Hautatze sistema.**

Azterketa eta merezimendu-lehiaketaren bitartez egingo da hautaketa; horien osagarri, prestakuntza ikastaroa eta praktika aldia egin beharko dira hautatze prozesuaren baitan.

7.1. Merezimendu-lehiaketa.

Gehienez 10 puntu emango dira atal honetan:

7.1.1. Euskara jakitearen balioespena.

Bigarren hizkuntz eskakizuna edo goragokoa egiaztatzen dutenek atal honetako gehienezko puntuazioa eskuratuko dute, besterik gabe (hau da, 5 puntu, hautatze-prozeduran guztira gehienez lor daitekeen gehienezko puntuaketaren ehuneko 5). Lehen hizkuntza eskakizuna egiaztatzen dutenek, berriz, horren erdia eskuratuko dute, hau da, 2,5 puntu.

Euskararen jakite-maila egiaztatzeko ere dagokion proba egingo da, borondatezkoa. Proba horretan parte hartu ahal izateko, lehiakideak aldez aurretik adierazi behar du deialdian parte hartzeko eskabidean, horretarako emandako epean.

Hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko ariketaren behin-behineko emaitzak argitaratzeaz batera, hamar laneguneko epea emango du epaimahaiak merezimendu horri dagozkion agiriak aurkez daitezen eta lehiaketan balioesterik izan dadin. Behin epea bukatutakoan ez da agiririk onartuko.

7.1.2. Gaztelania jakitearen balioespena.

Gaztelaniaren jakite-maila neurtzeko proba edo proben emaitzaren arabera balioetsiko da, baremo honen arabera:

Gehienez lortu daitekeen puntuazioa: 5 puntu.

Proba borondatezkoa izango da, test modukoa, eta bertan gramatika, ortografia eta hiztegiarekin lotutako ezagutzak balioetsiko dira. Gehienez 5 puntu emango dira proba horretan. Lortzen den puntuaziorik altuenari probako gehienezko puntuak egokituko zaizkio. Proban lortu den puntuazio altuenaren ehuneko 50era iristen ez diren puntuazioei 0 puntu emango zaie atal honetan.

6.5. Las pruebas no podrán iniciarse hasta transcurridos dos meses desde la publicación del último anuncio oficial de la convocatoria. El lugar, fecha y hora de celebración del primer ejercicio se anunciará con una antelación no inferior a siete días naturales en el BOTHA y se expondrá en el tablón oficial de anuncios del Ayuntamiento.

6.6. La publicación de los sucesivos anuncios de celebración de cada uno de los ejercicios que no se realicen de forma conjunta se efectuará en el tablón oficial de anuncios del Ayuntamiento, página web municipal y en el servicio de Policía Local, con al menos 72 horas de antelación a su celebración.

6.7. El tribunal podrá disponer la celebración de las pruebas de oposición en orden diferente al establecido en esta base séptima, así como la celebración de varias el mismo día. En este caso sólo se evaluará cada prueba respecto de quienes haya superado la anterior. Atendiendo el número de aspirantes que concurran en el proceso selectivo, el tribunal calificador podrá decidir la celebración de las pruebas en diversas tandas y en distintos lugares.

6.8 A la realización de las pruebas podrán asistir las personas aspirantes que figuren como convocadas al proceso así como aquellas que no figurando como tales acrediten en el acto convocado la interposición de la correspondiente reclamación pendiente de resolución.

6.9. La justificación de los requisitos y méritos se realizará por cualquier medio de prueba admitido en derecho y en particular para el perfil lingüístico, certificado del IVAP, Escuela oficial de idiomas, departamento de educación del Gobierno Vasco u otras administraciones públicas competentes.

6.10. El Departamento de Función Pública y el tribunal calificador se reserva la posibilidad de solicitar en cualquier momento del proceso selectivo la documentación original que afecte a cualquier fase del proceso.

**Séptima. Sistema selectivo**

La selección se efectuará a través del sistema de concurso-oposición y se complementará como una fase más del proceso selectivo con la realización de un curso de formación y un periodo de prácticas.

7.1. Fase de concurso

Este apartado se valorará sobre un máximo de 10 puntos:

7.1.1. Valoración conocimientos de euskera

Las personas aspirantes que acrediten un PL2 o superior, obtendrán de forma automática la máxima puntuación en este apartado (5 puntos que corresponden al 5,00 por ciento de la puntuación máxima alcanzable en el resto del procedimiento selectivo). Las personas aspirantes que acrediten estar en posesión del PL1, obtendrán una puntuación proporcional de 2,5 puntos.

Para la acreditación del conocimiento del euskera se realizará la correspondiente prueba de carácter voluntario. Para realizar esta prueba la persona deberá haberlo indicado en la solicitud de participación de la convocatoria, en el plazo establecido al respecto.

Conjuntamente con la publicación de resultados provisionales de la prueba de acreditación de perfiles lingüísticos, el tribunal establecerá un plazo de diez días hábiles para la presentación de documentación acreditativa de este mérito para ser valorado en la fase de concurso. No se admitirá documentación acreditativa finalizado este plazo.

7.1.2. Valoración conocimientos de castellano.

Se valorará en función del resultado de la prueba o pruebas que al efecto se realicen en relación con el conocimiento del idioma castellano de acuerdo al siguiente baremo:

Puntuación máxima alcanzable: 5 puntos.

La valoración se realizará mediante una prueba tipo test de carácter voluntario en la que se valorarán los conocimientos de gramática, ortografía y vocabulario. Esta prueba se valorará con un máximo de 5 puntos. A la puntuación directa máxima alcanzada se le asignará la puntuación máxima de la prueba. Las puntuaciones inferiores al 50 por ciento de la puntuación máxima alcanzada supondrán una puntuación de 0 puntos en este apartado.

Proba horretan parte hartu ahal izateko, lehiakideak aldez aurretik adierazi behar du deialdian parte hartzeko eskabidean, horretarako emandako epean.

7.2. Azterketa fasea.

Gehienez 90 puntu lortu ahal izango dira atal honetan; ariketa hauek osatuko dute:

7.2.1. Lehen ariketa. Gaitasun fisikoak neurtzekoa. Nahitaezkoa eta baztertzailea izango da. I. eranskinean ageri diren probak egin beharko dituzte lehiakideek, eta eranskin horretan bertan azaltzen diren formulen arabera balioetsiko dira.

Ariketa horretan 2 proba egin beharko dira; gehienez ere 20 puntu atera ahal izango dira, eta horietako bakoitzean ezarritako gutxieneko maila lortu beharko da gainditzeko. Ariketa fisikoak egitea parte hartzaileen erantzukizuna eta ez beste inorena izango da; lehiatzaileek kirol jantzi egokiak eraman beharko dituzte. Dopinaren kontrako kontrolak egitea erabaki ahalko du epaimahaiak, orokorrak edo era ausazkoan; egiteari uko egin edo positibo emanez gero, gainditu gabetzat joko da ariketa.

7.2.2. Bigarren ariketa. Ezagutzaren balioespena. Lehiatzaile guztiek ezagutza neurtzeko bi proba egin beharko dituzte. Proba horiek nahitaezkoak eta baztertzaileak izango dira.

Bigarren ariketako 1. proba. Nahitaezkoa eta baztertzailea. II. eranskineko gaiei buruzko ezagutza neurtzekoa.

Gehienezko puntuazioa: 35 puntu. Gutxieneko puntuazioa: 17,5 puntu.

Aukera anitzeko galderak erantzun beharko dira idatziz.

Bigarren ariketako 2. proba. Nahitaezkoa eta baztertzailea. Gasteizi buruz duten ezagutza neurtzeko proba.

Gehienezko puntuazioa: 15 puntu. Gutxieneko puntuazioa: 7,5 puntu.

III. eranskineko gaiei buruzko aukera anitzeko galderak erantzun beharko dira idatziz,

7.2.3. Hirugarren ariketa. Norberaren trebetasun eta gaitasunak neurtzekoa. Bi proba izango dira, nahitaezkoak eta baztertzaileak, lehiakide guztientzat. Ariketa honetarako, proba hauen diseinu eta balorazioan aditutako pertsona bat edo batzuk izendatuko dira.

Hirugarren ariketako 1. proba. Nahitaezkoa eta baztertzailea. Lehiakideen trebetasun eta nortasuna –lanpostuari dagozkionetan– neurtzeko eta eskatzen den lanbide-eskakizunetara egokitzen diren baloratzeko hainbat test psikometriko egingo dira. Gehienez 10 puntu lor daitezke. Epaimahaiak aldez aurretik zehaztuko ditu proba hau gainditzeko edo ez gainditzeko zein kalifikazio irizpideak.

Hirugarren ariketako 2. proba. Nahitaezkoa eta baztertzailea. Hautatzeko proba bat izango da, lanpostuan aritzeko gaitasun pertsonalak balioesteko. Gehienez 10 puntu lor daitezke. Epaimahaiak aldez aurretik zehaztuko ditu proba hau gainditzeko edo ez gainditzeko zein kalifikatzeko irizpideak.

**Zortzigarrena.- Emaitzak argitaratzea.**

8.1. Udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko dira kalifikazioak. Hala ere, Funtzio Publikoaren Sailak 1.6 oinarrian adierazitako bideak ere baliatuko ditu informazioa zabaltzeko.

8.2. Ariketa bakoitzeko emaitzak argitaratu ondoren, hiru eguneko epea izango da erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak epaimahaiburuari zuzendu behar zaizkio, idatziz, horretarako ezarriko den bidetik.

8.3. Aukera anitzeko galderen bidezko ariketak (test erakoak) egin ondoren, epaimahaiak erantzun zuzenen orria eta kalifikazio irizpideak argitaratuko ditu, proba psikometrikoen kasuan izan ezik, horiek kopiatzea deontologia eta jabetza intelektualaren arauen menekoak baita, eta estandar zientifikoen araberako baremoak baliatuz zuzentzen baitira.

Para realizar esta prueba la persona deberá haberlo indicado en la solicitud de participación de la convocatoria, en el plazo establecido al respecto.

7.2. Fase de oposición

Este apartado se valorará sobre un máximo de 90 puntos y constará de los siguientes ejercicios:

7.2.1. Primer ejercicio. Dirigida a valorar las aptitudes físicas. De carácter obligatorio y eliminatorio. Las personas aspirantes deberán realizar la/s prueba/s que se describen en el anexo I, valorándose las mismas conforme a las fórmulas en él establecidas.

Este ejercicio consistirá en 2 pruebas que se calificarán sobre un máximo de 20 puntos, siendo necesario obtener el nivel mínimo establecido en cada una de ellas para superarlo. Los ejercicios físicos se realizarán bajo la exclusiva responsabilidad de quienes participen que deberán presentarse con el equipo deportivo adecuado. El tribunal calificador podrá establecer la realización de controles antidoping generales o aleatorios cuya negativa a realizarse o en el caso de resultar positivos supondrían la no superación del ejercicio.

7.2.2. Segundo ejercicio. Valoración de conocimientos. Constará de dos pruebas cuyo objeto es la evaluación de conocimientos, ambas de carácter obligatorio y eliminatorio para todas las personas aspirantes.

Ejercicio 2. Prueba 1. Obligatoria y eliminatoria. Dirigida a comprobar el conocimiento de los temas recogidos en el anexo II

Puntuación máxima: 35 puntos. Puntuación mínima: 17,5 puntos.

Consistirá en contestar por escrito a un cuestionario de preguntas con alternativas de respuesta.

Ejercicio 2. Prueba 2. Obligatoria y eliminatoria. Dirigida a comprobar el conocimiento de la ciudad de Vitoria-Gasteiz.

Puntuación máxima: 15 puntos. Puntuación mínima: 7,5 puntos.

Consistirá en contestar por escrito a un cuestionario de preguntas con alternativas de respuesta sobre los temas del anexo III.

7.2.3. Tercer ejercicio. Dirigida a valorar las aptitudes y competencias personales. Constará de dos pruebas, ambas de carácter obligatorio y eliminatorio para todas las personas aspirantes. Para su desarrollo se nombrará una o varias personas especialistas en el diseño y valoración de este tipo de pruebas

Ejercicio 3. Prueba 1. Obligatoria y eliminatoria. Consistirá en la realización de una serie de tests psicométricos encaminados a valorar las aptitudes y personalidad de las personas aspirantes con relación al puesto al que optan y su adecuación al perfil profesional requerido. Puntuación máxima alcanzable 10. El tribunal determinará previamente los criterios de superación/no superación y, en su caso, de calificación para la superación de esta prueba.

Ejercicio 3. Prueba 2. Obligatoria y eliminatoria. Consistirá en la realización de una prueba de selección orientada a valorar las competencias personales para el desempeño del puesto. Puntuación máxima alcanzable 10. El tribunal determinará previamente los criterios de superación/no superación y, en su caso, de calificación para la superación de esta prueba.

**Octava. Publicación de resultados**

8.1. Las calificaciones se harán públicas el tablón oficial de anuncios del Ayuntamiento. No obstante el departamento de Función Pública difundirá la información a través de los medios y establecimientos señalados en la base 1.6.

8.2. Después de la publicación de los resultados de cada ejercicio se establecerá un plazo mínimo para la presentación de reclamaciones de tres días. Las reclamaciones deberán dirigirse a la presidencia del tribunal por escrito en la forma que al efecto se establezca.

8.3. A la finalización de los ejercicios que se realicen bajo la fórmula de cuestionario con alternativas de respuesta (tipo test), el tribunal calificador publicará las plantillas de respuestas correctas y criterios de calificación, excepto en el caso de pruebas psicométricas cuya reproducción esté sujeta a normas deontológicas y de propiedad intelectual y la corrección se realiza de acuerdo a baremos que responden a estándares científicos.

8.4. Azterketa-aldiko ariketak oro eta merezimendu-lehiaketa burutu ondoren, eta epaimahaiari aurkeztutako erreklamazioak ebatzi direlarik, proba guztiak gainditu dituzten lehiakideen zerrenda emango du argitara epaimahaiak, guztira lortutako puntuazioen arabera sailkatuta, ariketa bakoitzean lortutako puntuak ageri direla.

8.5. Lehiakideek horretarako epearen barruan aurkezten dituzten berrikusteko eskabide eta erreklamazioak oro aztertu eta erantzuntzat joko dira epaimahaiak ariketetako bakoitzaren behin betiko emaitzak onesteko erabakia hartzen duelarik.

8.6. Behin betiko emaitzei buruzko erabakiak argitaratzen direnean, haien kontra gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute lehiakideek, Gasteizko Udaleko Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

**Bederatzigarrena.- Prestakuntza – praktika aldia.**

9.1. Prestakuntza ikastaroa eta praktika aldia egin beharko dira hautatze prozesuaren baitan. Betetzeko dauden lanpostuak baino lehiakide gehiago ez dira horietara igaroko. Nahitaezkoak izango dira, eta baztertze indarra izango dute.

9.2. Ertzaintzaren Akademia arduratuko da prestakuntza ikastaroak eta praktika aldiak antolatu eta garatzeaz, bai eta horiek azken ebaluazioaz; dena den, hark toki erakundeko prestakuntza zentroen esku utz ditzake antolaketa eta gauzatzea, eskatuz gero. Prestakuntza ikastaroa ikasturte bat izango da, zein lehiakideak hautatu nahiz baztertzeko baliatuko baita. Ertzaintzaren Akademiako zuzendaritza kontseiluak onetsi eta indarrean dagoen ikasketa planaren arabera egingo da, eta gehienez ere 9 hilabeteko iraupena izango du.

9.3. Prestakuntza ikastaroa gainditu ondoren egingo dute praktika aldia lehiakideek (egutegiko 12 hilabete errealak), beren jarduera-arloen arabera erabateko prestakuntza lortzeko eta, bereziki, Gasteizko Udaltzaingoko zerbitzuen egitura eta jarduera ezagutzeko egokien suertatzen diren zentro edo bulegoetan. 12 hilabete horietatik kendu egingo dira hainbat arrazoigatik (aldi baterako ezintasuna, baimena...) lehiakideak praktika aldietara joaten ez diren ordu-egunak). Praktika aldi hori 26 hilabetera arte luza daiteke, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik, 2.5.2. oinarria betetzearen ondorioetarako. Benetako praktika aldia amaitu ondoren funtzionario izendapenera arte praktiketan ematen den aparteko denbora ez da ebaluatuko.

9.4. Hain zuzen ere, kategoriari dagozkion zereginak betetzeko lehiatzaileek erakusten duten gaitasuna ebaluatuko da praktika aldian, hau da, zenbateraino egokitu diren lanbide horretan taxuz jarduteko, eta ikasketa planean xedatutakoaren araberakoa izango da.

9.5. Praktika aldiaren ardura duen organoak gai/ez gai kalifikazioak emango ditu. Praktika aldiaren ardura duen organoak ematen dituen kalifikazioak lotesleak izango dira epaimahaiarentzat, eta, horrenbestez, baita karrerako funtzionarioak izendatzea dagokion udal organoarentzat ere.

**Hamargarrena.- Datu pertsonalak.**

10.1. Hautatze prozesuan parte hartzeak eskabidean adierazitako norberaren datuen tratamendua onartzen dela esan nahiko du; hau da, prozesuaren baitako emaitza partzialak nahiz behin betikoak buletinetan, iragarki tauletan, web-orrian eta bestetan argitaratzea onartzen dutela lehiakideek.

10.2. Publikotasun printzipioaren menpe daude hautatze prozesuak; beraz, lehiakideak bere datuak baliatzea ontzat eman ezean, ez da haren eskabidea onartuko. Norberaren datuak ikusi, zuzendu, ezeztatu nahiz kontra agertzeko eskubideak baliatzeko, deialdia egin duen organoarengana jo ahal izango da.

8.4. Concluida la realización de todos los ejercicios y de la fase de concurso, resuelta todas las reclamaciones presentadas ante el tribunal, éste hará pública la relación de aspirantes que hubiesen superado todas las pruebas, por orden de puntuación total alcanzada, con indicación de los puntos obtenidos en cada ejercicio.

8.5. Todas las solicitudes de revisión y reclamaciones presentadas por las personas aspirantes en el plazo correspondiente se entenderán revisadas y contestadas en el acuerdo del tribunal calificador por el que se aprueben los resultados definitivos de cada ejercicio.

8.6. Ante las publicaciones de acuerdos definitivos del tribunal las personas aspirantes podrán interponer en el plazo de un mes contado a partir del siguiente a su publicación, recurso de alzada ante la Concejalía delegada del Función Pública del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

**Novena. Fase de formación/prácticas.**

9.1. Se establece una fase de formación y prácticas como parte del proceso selectivo. A la misma accederá un número de aspirantes no superior al de plazas a cubrir. Esta fase es obligatoria y eliminatoria.

9.2. La organización y desarrollo de los cursos de formación y periodos de prácticas así como su evaluación final corresponderá a la academia de policía del País Vasco, sin perjuicio de que ésta pueda delegar su organización y desarrollo, en los centros de formación de la entidad local si así lo solicitase. El curso de formación, consistirá en un curso académico de carácter selectivo, que se realizará conforme al plan de estudios, en vigor, aprobado por el Consejo Rector de la academia de policía del País Vasco, con una duración máxima de 9 meses.

9.3. El periodo de prácticas se realizará por las personas aspirantes una vez superado el curso de formación, durante un periodo efectivo de 12 meses (de los que habrá que descontar las ausencias por incapacidad temporal, permisos, etc.), en los centros o dependencias que, en razón de sus áreas de actividad, resulten más adecuados para procurar la formación integral de las personas aspirantes y el particular conocimiento de la estructura y funcionamiento de los servicios policiales de la policía local del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Este período también podrá ser prolongado hasta computar un máximo de 26 meses desde la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes a los efectos del cumplimiento de la base 2.5.2. La permanencia en período de prácticas desde la finalización del período efectivo de prácticas hasta el nombramiento como personal funcionario de carrera tendrá la consideración de no evaluable.

9.4. La evaluación del periodo de prácticas se referirá a la idoneidad mostrada por las personas aspirantes para el desempeño de las funciones propias de la categoría, atendiendo a la eficacia profesional vinculada con la ejecución de tareas, y será regulado conforme a lo establecido en el plan de estudios.

9.5. La calificación que acuerde el órgano responsable de las prácticas será de supera/no supera. Las calificaciones asignadas por el órgano responsable del periodo de prácticas serán vinculantes para el tribunal calificador y consecuentemente, para el órgano del Ayuntamiento al que compete efectuar el nombramiento como personal funcionario de carrera.

**Décima. Datos de carácter personal.**

10.1. La participación en este proceso selectivo supone la aceptación por parte de las personas aspirantes del tratamiento de los datos de carácter personal recogidos en la solicitud para las publicaciones en boletines, tablones de anuncios, página web y otros medios de los resultados parciales y definitivos del proceso selectivo.

10.2. Los procesos selectivos están regidos por el principio de publicidad por lo que no se admitirá la solicitud de la persona si no consiente la cesión de sus datos. Para ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición pueden dirigirse al órgano convocante.

10.3. Behin-behineko onarpenetik azterketako azken emaitzak argitaratu arte, lehiakideak nortasun agiriaren zenbakiaren bidez bakarrik identifikatuko dira argitalpen ofizialetan.

**Hamaikagarrena.- Izendatze proposamena.**

11.1. Izendatze proposamena Udaleko Laneko Osasunaren Atalak "gainditua" kalifikazioa ematearen mende egongo da; Euskal Herriko Poliziaren hautespen eta prestakuntza araudia onartu zeneko Dekretua bigarrenez aldatzeko otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuaren eranskinean (2004ko martxoaren 2ko EHAA, 42. zk.) aurreikusitako baztertze medikurako taularen araberakoa izango da hori.

11.2. Merezimendu lehiaketa nahiz azterketa-aldia bukatzean, kalifikaziorik hoberenak lortu dituzten lehiakideak izendatzeko proposamena biltzen duen akta igorriko dio epaimahaiak Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkariari. Izendatzeko proposatzen diren lehiakideen kopuruak bat etorri beharko du bete beharreko lanpostuen kopuruarekin (Funtzio Publikoaren Sailak txostena egin beharko du aldez aurretik, horretarako). Puntuetan berdinketa egonez gero, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak haren 20.4.a artikuluan jasotako irizpideari jarraituko zaio, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunaren inguruan dioenari, hain zuzen. Berdinketak jarraitzen badu, azterketa-aldian punturik gehien lortu duen lehiakidea proposatuko da; hor ere berdinketak berean segitzen badu, hirugarren ariketan, bigarrenean eta lehenengoan lorturiko puntuazioa hartuko da kontuan, hurrenkera horretan. Hala ere berdinketak bere horretan jarraitzen badu, lehiakide zaharrena proposatuko da.

11.3. Hizkuntza eskakizuna betetzea ezinbesteko duten eta ez duten lanpostuak daudenez, baldintza hori betetzen dutenen artetik aukeratuko ditu lehenik epaimahaiak izendatu beharrekoak, puntuazio hurrenkeraren arabera. Ondoren, berriz, derrigortasun datarik ez duten lanpostuetarako izendatu beharrekoak aukeratuko ditu, modu berean.

**Hamabigarrena.- Egiaztagiriak aurkeztea.**

12.1. Udaltzain lanpostuetarako hautatze-probak gainditu eta epaimahaiak praktika aldiko funtzionario izendatzeko proposatzen dituen lehiakideek oinarri hauetan adierazitako betebehar eta baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, hamabost laneguneko epearen barruan aurkeztu ere, behin betiko kalifikazioak argitaratzen diren egunaren biharamunetik kontatuta.

12.2. Horrela jokatuko da ere, praktika aldia hasi aurretik edo karrerako funtzionario izendatua izan aurretik bete beharreko baldintzekin. Eskumena duen organoak gehienez, 15 eguneko epea ezarriko du dagozkion betekizunak egiaztatzeko, lehenago egiaztatu ez badira.

12.3 Baldin eta adierazitako epean, Zuzenbide Zibilaren doktrinan eta jurisprudentzian definitutako zorizko edo ezinbesteko kasuak salbu, proposatutako lehiakideak agiriak aurkezten ez baditu edo eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen ez badu, ezin izango da izendatu, eta bertan behera geratuko dira haren jarduerak oro; horrek ez du galaraziko, gainera, eskabidean datu faltsuak eman izanagatik erantzukizunak eskatzea. Behin betiko sailkapenaren hurrenkerari jarraiki ordeztuko dira halakoak.

**Hamahirugarrena. Prestakuntza eta praktika aldiari aplikatu beharreko erregimen juridikoa.**

13.1. Proposatutako lehiakideek hautatze prozesuko beste fase bat ere gainditu beharko dute: alde batetik, prestakuntza aldi bat egin beharko dute; bestetik, berriz, praktika aldia. Hori programatu, antolatu eta zertzea Euskal Herriko Ertzaintzaren Akademiaren ardurapekoa izango da; dena den, hark toki erakundeko prestakuntza zentroen esku utz ditzake antolaketa eta gauzatzea, eskatuz gero.

13.2. Agiriak aurkezteko epea bukatzen denean, hautatuak izateko proposatutakoen zerrenda argitaratuko da ALHAOn, eta horiek praktika aldiko funtzionario izendatuko. Horrenbestez, prestakuntza

10.3 Desde la admisión provisional hasta la publicación de los resultados definitivos de la fase de oposición las personas aspirantes se identificaran exclusivamente por el DNI en las publicaciones oficiales.

**Undécima. Propuesta de nombramiento.**

11.1. La propuesta de nombramiento quedará supeditada a la calificación de "supera" emitida por la Unidad de Salud Laboral del Ayuntamiento que se realizará conforme al cuadro de exclusiones médicas anexo al decreto 36/2004 de 17 de febrero de segunda modificación del decreto por el que se aprueba el Reglamento de selección y formación de la policía del País Vasco (BOPV 42 de 2 de marzo de 2004).

11.2. Una vez concluidas las fases del concurso-oposición, el tribunal calificador elevará a la Concejalía-delegada de Función Pública, acta de propuesta de nombramiento a favor de aquellas personas aspirantes que hubiesen obtenido las máximas calificaciones, cuyo número deberá coincidir con el de plazas a cubrir, previo informe que al respecto emita el departamento de Función Pública. Los empates de puntuación en el orden de clasificación se dirimirán conforme al criterio recogido en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres, en su artículo 20.4.a. De persistir el empate será propuesta la persona que hubiera obtenido la mayor puntuación total en la fase de oposición, y de persistir el empate, según el orden de puntuación del tercer, segundo y primer ejercicio, por este orden. Finalmente, de persistir el empate, se propondrá a la persona aspirante de mayor edad.

11.3. Al haber plazas con y sin requisito de acreditación de perfil de euskera, el tribunal calificador realizará la asignación para el nombramiento de las personas aspirantes que cumplan el requisito del perfil lingüístico, siguiendo el orden de puntuación. Una vez finalizado el mismo, y de igual manera, realizará la asignación correspondiente a las plazas sin fecha de preceptividad.

**Duodécima. Presentación de documentación**

12.1. Las personas aspirantes a las plazas de agente que hayan superado las fases del concurso-oposición, y sean propuestas para su nombramiento como personal funcionario en prácticas, deberán presentar dentro del plazo de quince días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación de las calificaciones definitivas, los documentos acreditativos de los requisitos y condiciones establecidos en estas bases.

12.2. De igual manera se procederá con aquellos requisitos cuyo plazo para su obtención sea el inicio de la fase de prácticas o con carácter previo al nombramiento como personal funcionario de carrera. Se establecerá por el órgano competente un plazo máximo de 15 días al objeto de acreditar, si no se hubiesen acreditado con anterioridad, los requisitos que correspondan.

12.3 Si dentro de los plazos señalado y salvo caso fortuito o de fuerza mayor, tal y como se definen estos conceptos doctrinal y jurisprudencialmente en derecho civil, la persona propuesta no presentara su documentación o no acreditara reunir las condiciones exigidas, no podrá ser nombrada, quedando anuladas todas sus actuaciones, sin perjuicio de la responsabilidad en que pudiera haber incurrido por falsedad en su instancia. En tal caso, serán sustituidos, siguiendo la prelación del orden de clasificación definitiva.

**Decimotercera. Régimen jurídico de aplicación al periodo de formación y prácticas.**

13.1. Las personas aspirantes propuestas deberán superar una fase más del proceso selectivo, que constará de un primer periodo de formación y otro de realización de prácticas, cuya programación, organización y desarrollo corresponderá a la academia de policía del País Vasco sin perjuicio de que ésta pueda delegar en los centros de formación de la entidad local si así lo solicitase.

13.2. Finalizado el plazo de presentación de documentos, la relación de personas propuestas se publicará en el BOTHA y serán nombradas personal funcionario en prácticas, debiendo incorporarse

ikastaroa eta praktika aldia egin beharko dute, harik eta karrerako funtzionario izendatu edo hautatze prozesutik kanpo utzi arte.

13.3. Praktika aldiko funtzionario diren bitartean, C2 (garai bateko D) sailkapen-taldeari dagozkion soldataren eta aparteko ordainsarien pareko ordaina jasoko dute. Ordain hori gehitu egingo da baldin eta praktika aldia lanpostu batean jardunez egiten bada, hari dagozkion osagarrizko ordainketak ere ordainduz.

13.4. Prestakuntza ikastaroak eta praktika aldiak ezingo dira batera egin, eta horien iraupena, guztira, ezingo da izan 30 hilabetetik gorakoa lanpostu bakoitzerako oinarrietan xedatzen denaren ildotik.

13.5. Prestakuntza ikastaroak eta praktikak, zeinek bere aldetik, baztertze indarra izango dute, eta gainditzen ez badira, lehiakidea hautatze prozesutik kanpo geratuko da besterik gabe, eta dena delako eskala edo kategorian sartzeko eskubideak oro galdu egingo dira.

Hala ere, munta handiko arrazoiren bat dela-eta lehiakideren bat ez bada ikastarora edo praktika aldira agertzen, edo ez baditu burutzen, hurrena berriro egiten direnean egin ahal izango ditu, zegokionean egitea galarazi zioten arrazoiak desagertu direlarik. Ikastaroa eta praktika aldia antolatu eta bideratzearen ardura duen organoaren esku egongo da dena delako arrazoia aintzat hartzeko den ala ez erabakitzea.

13.6. Prestakuntza ikastaroko eta praktika aldiko emaitzak ikusirik, prozesua gainditu duten lehiakideak karrerako funtzionario izendatzeko proposamena egingo du Euskal Herriko Ertzaintzaren Akademiak.

13.7. Praktika aldia gainditzen ez dutenek izendatuak izateko eskubideak oro galduko dituzte, alkatearen ebazpen arrazoitu dela medio, eta lanpostua bete gabe geratuko da.

**Hamalaugarrena. Izendapena eta lanpostuaz jabetzea.**

14.1. 9.3. oinarrian xedatutako salbuespena alde batera utzita, gehienez ere bi hilabeteko epean, praktika aldia gainditu dela adierazten duen Polizia Akademiaren zuzendariaren ebazpena ematen denetik, karrerako funtzionario izendatuko dira hura gainditu duten lehiakideak, Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkariaren ebazpen baten bitartez (ALHAOn emango da argitara).

14.2. Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkariak izendapena egin ondoren, 10 laneguneko epean jabetu beharko du lanpostuaz izendatutako lehiakideak, jakinarazpenaren berri ematen zaion egunaren biharamunetik kontatuta. Lanpostuaz jabetu aurretik, bateraezintasunik ez duela aitortu beharko du lehiakideak. Adierazitako epean lanpostuaz ez jabetzeak, munta handiko arrazoiren bat izan ezik, lanpostuari uko egin zaiola esan nahiko du.

14.3. Zerbitzuarengatiko kalte-ordainei dagokienez Gasteizko udalerria joko da beti bizilekutzat.

**Hamabosgarrena. Kontra egitea.**

15.1. Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legean eta Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean adierazitako moduan eta kasuetan jo ahal izango dute interesatuek oinarri hauen, deialdiaren beraren nahiz oinarrietatik eta epaimahaiaren jardueratik eratorritako administrazio egintzen kontra.

**Hamaseigarrena: Eranskinak.**

Udalaren web-orrian argitaratuko da dagozkion eranskinak –gaiak, proba fisikoak eta zereginak– jasotzen dituen agiria.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko maiatzaren 19an.– Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkaria, JOAQUIN ESTEBAN SANCHEZ.

al curso de formación y periodo de prácticas que corresponda, hasta en tanto se produzca su nombramiento como personal funcionario de carrera o su exclusión del proceso selectivo.

13.3. Como personal funcionario en prácticas percibirán una retribución equivalente al sueldo y pagas extraordinarias correspondiente al grupo de clasificación C2 (antiguo D), que se incrementará, si las prácticas se realizan desempeñando un puesto de trabajo, en las retribuciones complementarias asignadas a éste.

13.4. Los cursos de formación y periodos de prácticas no podrán simultanearse en su desarrollo, sin que la duración de cada uno de ellos, ni de la acumulada de ambos, pueda exceder de 30 meses, de acuerdo con lo que estipulen las bases específicas de cada plaza.

13.5. Los cursos de formación y periodos de prácticas tendrán carácter eliminatorio individualmente considerados, y su no superación determinará la automática exclusión de la persona aspirante del proceso selectivo y la pérdida de cuantos derechos pudieran asistirle para su ingreso en la correspondiente escala o categoría.

No obstante lo dispuesto en el apartado anterior aquellas personas que, concurriendo causa de fuerza mayor, no se incorporen al curso o periodo de prácticas o no lleguen a completar los mismos, podrán hacerlo en los siguientes que se celebren, una vez desaparecidas las circunstancias impeditivas. La apreciación de la causa corresponderá al órgano responsable de la organización y desarrollo del curso y prácticas, al que competerá adoptar la resolución que proceda.

13.6. A la vista de los resultados del curso de formación y el periodo de prácticas, la academia de policía del País Vasco propondrá el nombramiento como personal funcionario de carrera, de aquellas personas que hubieran superado dicho proceso.

13.7. Quienes no superen el periodo de prácticas perderán todos los derechos a su nombramiento por resolución motivada de Alcaldía quedando la plaza desierta.

**Decimocuarta. Nombramiento y toma de posesión.**

14.1. Con la excepción establecida en la base 9.3, dentro de un plazo máximo de dos meses en relación a la fecha de la Resolución de la Dirección de la Academia de Policía por la cual se declara superado el período de prácticas, las personas que lo hubieran superado serán nombradas personal funcionario de carrera, mediante resolución de la Concejalía-Delegada de Función Pública, que se publicará en el BOTHA.

14.2. Una vez efectuado el nombramiento por la Concejalía-Delegada de Función Pública, la persona nombrada deberá tomar posesión en el plazo de 10 días hábiles a contar del siguiente a aquél en que le haya sido notificado el nombramiento. Previamente a la toma de posesión, deberá declarar que no está incursa en causa de incompatibilidad. Si no tomara posesión en el plazo indicado, y salvo caso fortuito o de fuerza mayor, se entenderá que renuncia a la plaza.

14.3. A efectos de indemnizaciones por razón de servicio siempre se considerará el municipio de Vitoria-Gasteiz como lugar de residencia.

**Decimoquinta. Impugnaciones.**

15.1. Estas bases, su convocatoria y cuantos actos administrativos se deriven de la misma y de la actuación del tribunal calificador, podrán ser impugnados por las personas interesadas en los casos y forma establecidos en la ley 30/92 de 26 de noviembre, de régimen jurídico de las administraciones públicas y del procedimiento administrativo común y en la ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la jurisdicción contencioso-administrativa.

**Decimosexta: Anexos.**

En la página web municipal se publicará el documento que incluye los anexos correspondientes a temario, pruebas físicas, y funciones.

Vitoria-Gasteiz, 19 de mayo de 2011.– El concejal delegado del área de Función Pública, JOAQUÍN ESTEBAN SÁNCHEZ.